

dugu, nolabait esan, gu eragileak izan, baina gero beraiek dinamika hartzea».

Online ere saiatu dira, baldintzak malguagoak baitira, «baina onartu behar dugu jendea ez zaiola asko gustatzen. Nik pentsatu nuen online irakaskuntza herrietarako irtenbidea izan zitekeela, baina jendeak ez du nahi. Eta herri txiki horietan hurbiltasunak eta sareak garrantzi handia daukate; jendeak besteekiko harremanak balioesten ditu, eta horretarako, taldea, aurrez aurre egotea, beharrezkoa da. Harremanak euskaraz... tira, harremanak, zeren hainbat herritan negua oso gogorra da, eta euskarazko harreman horiek etxetik ateratzeko bide bat dira».

Talde heterogeneoak dira, eta nabari da gazte gehienek D ereduan ikasten dutela, horregatik ez dira asko, Gasteizen bezala. «Trebiñun bertan, Argantzonen, badaukagu ikastola. Esango nuke normalean berrogei urtetik gorako jendea joaten dela, salbuespenak salbuespen». Eta gehienak, «argi eta garbi», emakumezkoak dira talde guztietan.

Korrikari begira, herri guztietan herri batzordea dago. «Arabian herri txiki pila bat dago, eta Korrika ezin da guztietatik igaro, baina igarotzen ez bada ere, ekitaldiren bat egiten dute, edo besterik ez bada ere txokolatada bat, kilometroren bat erosten dute...».

AMAIA ALDANONDO PERKAZ

«Laguntzak behar dira, baina azkenean, herri ekimenei esker doa hau aurrera»

Zangozaldeko AEK-ko arduradun Amaia Aldanondo Perkazek «Aragoiko muga» duten oztopo nagusietako bat ekarri du hizpidera: Zangoza herri koskorra da, 5.000 biztanle inguru dituen, baina gainontzeko herriak oso txikiak dira. Irunberrik 1.000 biztanle baino gehiago ditu, Kasedak ia 1.000 eta beste guztiek askoz gutxiago. «Hemen dugun arazoetako bat populazioaren urritasuna da. Pirinioetan aspaldi gertatu zena gertatzen

ari da, gero eta gutxiago garela, eta hori da oro har Nafarroan dagoen erronka. Populazioa gero eta zaharragoa da eta gero eta haur gutxiago daude. Bestalde, herriak oso sakabanatuta daude».

AEKren helburua jende hori euskarara hurbiltzea da, baina haren aldeko jarrera gorabehera, ez da erraza: «Baditugu bi ikastola eta herri txikietako eskolak, baina horietan A ereduan baino ez dute ikasten, D ereduan publikorik

«Gure filosofia da herri horietara inor ez badoa, guk joan behar dugula euskararen inguruan jendea biltzeko, euskaltegia ezagutzeko, dauden aukerak...»

ez baitago, hau alderdi 'ez-euskalduna' delako. Hemen administrazioak ez du ia baliabiderik jartzen euskara sustatzeko, erraztasun gutxi ematen ditu».

Duela bost ikasturte-edo euskaltegi bat zabaldu zuten Zangozan, «eta jendea gerturatzeko eragina izan du. Gaur egun 45-50 ikasle ditugu eskualdean». Hiru herritan ematen dituzte eskolak: Irunberrin, Oibarren eta Zangozan, eta hazkunde nabarmena izan da.

Legeak ezarritako zonifikazioak, egoera soziolinguistikoa deskribatzetik harago, badirudi euskara berreskuratzeko ahaleginak oztopatzea duela xede; hala ere, badirudi argi dagoela, halaber, herritarren atxikimendua sendoa dela.

«Denetariko jendea batzen dugu: helduak, jubilatuak... jubilatu nahikotxo, bai, kontuan izan hemengo populazioaren gehiengoa adinekoa dela. Baita gazte asko ere, euskara ikasteko aukera izan ez dutenez, 20 edo 30 urteko jende asko etortzen zaigu. Beraz, ikasle tipologia askotarikoa da. Gehienak ikas prozesua hasi berria dutenak».

Haien motibazioa euskararen ezagutza da, «jendeak bere hizkuntzat hartzen duelako euskara». Hemen lana ez da motibazioa izaten. Beraz, ezagutza, ikasteko aukerarik izan ez dutelako, seme-alabak edo bilobak ikastolara eramaten dituztelako... Baita harremanak izateko aukera ere.

Aurten, AEK-ko egunerokotasunaz gainera, Korrika izango da eta pauso bat harago eman nahi izan dute. «Normalean Zangozan, Irunberrin, Oibarren... euskararen alde elkartzeko erraztasuna izan dugu, edo



Argazkia: Iñigo URIZ | FOKU

bilerak eta batzordeak egiteko, baina pentsatu genuen bazela beste herrixketara joateko garaia. Kasedak badu bere historia, esate baterako, gerra garaian fusilatu asko izan ziren, eta hor Korrika batzorde bat osatzea lortu dugu, baita jende asko maiztasunez Korrikaren alde elkartzea ere. Aurten Kasedatik pasatuko da Korrika, bere historian hirugarren edo laugarren aldiz. Hori herriko euskaltzaleentzat sekulako oparia da. AEKri eskatu genion eta, baiezkoa emanda, jendea oso pozik dago. Beste herrietan ere bilerak egin ditugu, Galipentzun, Gabarderalen... bertatik ere pasatuko baita Korrika, eta indarra egin behar da, ezta? Gure filosofia da herri horietara inor ez badoa, guk joan behar dugula euskararen inguruan jendea biltzeko, euskaltegia ezagutzeko, dauden aukerak; esate baterako, jendeak ez baitaki orain Nafarroako Gobernuak dirulaguntza batzuk ematen dituela. Esa herrian ere egin dugu bileraren bat, Urraulbeiti, Urraulgoiti, Erromantzatuko udalekin harremanetan gaude...». Batzordeak lau herri handietan dituzte: Zangoza, Irunberri, Kaseda eta Oibarren.

«Gure erronka jendearengana iristea ere bada. Kasu konkretu bat aipatzeko, Oibarko Udalarekin hitzarmen bat sinatu genuen orain dela bi urte, herritarrei zerbitzuak emateko aukera ikusten baikenuen, eta haietako bat euskara da, Udalar

udaletxean eskolak ematen hasi ginen, ikasleek dirulaguntza dutela. Horrela egin dugu aurrera hainbat konturekin eta poliki-poliki horrela jarraitzea da ideia. Beharbada herri guztietan ezin da egin, baina hainbat lekutan zerbitzu hori eskaintzeko aukera izatea oso garrantzitsua dela uste dut, batez ere populazioa herrietan finka dadin; bestela, Iruñera doa».

Doakotasunaz, «erronka eta beharra» dela dio Aldanondok. Jende askok uste du doan izan beharko lukeela, eta oro har dirulaguntzak urriak dira. «Egia da Oibar eta Zangozako udalek dirulaguntza ematen dutela, baina gainontzeko guztiek, ez». Orain Errigoraren laguntza izango dute, «baina azkenean, ikusten duzu, herri ekimenei esker doa hau aurrera».

Korrikari begira, egun polita antolatu dute gaurko, hain justu, Oibar eskualdeko jende guztiaren topagune bihurtuta. Egun osorako programa erakargarria dute Korrikaren aldeko giroa berotzeko: bertso bazkarian Xabat Illarregiren eta Ekhiñe Zapiainen bertsoak entzuteko aukera izango dute, Aske txarangak herriko karrikak girotuko ditu, ondoren DJak arduratuko dira musikaz, eta amaitzeko Galtza Gorriak eta El Sonido de la Metralla talde nafarren kontzertua izango da. Ez da Korrika aurreko ekimen bakarra izango, eskualde osoan barna banatu behar baitituzte jarduerak, baina bai nabarmenena. «Gainera, Oibar eskualdearen erdian dago, badu azpiegitura...».

IRUNGO AEK EUSKALTEGIA

«Ertzetako euskaldunoi ere begiratu behar zaigu, eta ahotsa eman»

Irungo AEKn, mahaiaren bueltan, garai desberdinak ezagutu dituzten lau lagun: Beñat Altzaga Olazabal euskaltegiko zuzendaria eta Joxean Eloseg

egi, Koro Lopetegi Larrañaga eta Idoia Genua Altzuri irakasleak. Leguia kaleko egoitza 1980. urtean okupatu zutenen artean zegoen Joxean Eloseg

egi. Berak ondo ezagutzen du euskaltegiaren ibilbide osoa. Lehen euskal eskola edo gau eskola 1967an sortu zen Irunen. Tartean etena izan zen eta 1973. urtean berpiztu zen ekimena. Elosegik hartu zuen Irungoa koordinatzeko lana. Franco hil ondorengo urteetan indarra hartu zuen mugimenduak. Pentsa, 1976-1977 urteen bueltan ia seiehun ikasle izatera iritsi zen. Lokalak behar ziren eta irakasleak, gau eskolak arratsaldeko seietatik aurrera ematen baitziren eta ez baitzen erraza ikasle kopuru hori kudeatzea.

«Behe urratsetan militantziak, euskara ikasteko gogoak, biziago jarraitzen du, tituluetatik urrun. Goi urratsetan gehiago sumatzen da titulua behar dutenen pisua, euskara lanpostu baterako edo puntuatzeko behar dutenen presentzia»

begi bistakoa da beharra badagoela», kontatu du Elosegik. «Oso urte ausartak», halaxe ditu gogoan. «Jende askok ikusten zuen Francoren garaian injustizia handiak gertatu zirela eta zerbait egin nahi zuen. Oso erantzun primarioa izan zen».

1979ko ikasturtean, 350 ikasle ingururekin, egun osoko dinamikari eutsi zion Irungo AEK-k. «Orduan hasi ginen nolabaiteko profesionaltasunarekin, ‘soldatez’ hitz egiten, baldintza ez oso onetan, hala ere. AEKren historian oso urte garrantzitsuak izan ziren eta baita Irungo AEKn ere».

Euskaltegia martxan, herritarrek euskara eskolak hartzeko gogoz eta, noski, irakasleak behar. «Ni 1983an hasi nintzen AEKn irakasle, 17 urte nituela. Institutuan ikasten ari nintzen eta klaseak amaituta AEKra etortzen nintzen alfabetatzera. Ahizpak esan zidan Artiako auzo elkarte